



Asepeyoren zerbitzuen fitxa

Prestazio osagarriak

Prestazioaren azalpena

Asepeyok, Prestazio Berezien Batzordearen (PBB) bidez, egoera berezien edo beharrian-egoeren ondorioz sortutako gorabeheren aurre egiteko prestazioak aintzatets ditzake, baldin eta langileek edo haien eskubidedunek istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz aurre egin behar badiete gorabehera horiei.

Prestazio osagarriak aukerakoak dira, eta Gizarte Segurantzaren arauzko prestazioetatik ezberdinak dira.

Onuradunak

Lan istripu bat edo gaixotasun profesional bat izan duten langileak, edo haien eskubidedunek bigarren gradura arte, eta prestazioak eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenak.

Prestazioak

- **Errehabilitatzeko eta suspertzeko laguntzak**
 - Zentro soziosanitario edo egoitza-zentro batean sartzeko diru-laguntzak
 - Ospitaleratzearekin lotutako gastuak
 - Arautu gabeko laguntza tekniko eta protesiak
 - Arautu gabeko terapiak edo tratamendu medikoak
- **Lanbide-berrorientazioa eta langunea egokitzea**
 - Prestakuntza profesionaleko eta gizarteratzeko eta laneratzeko ikastaroak
 - Langile autonomoak bere jarduera gauzatzen duen lokala egokitzea, baita lan-baliabideak ere
- **Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak gauatzeko funtsezkoak diren baliabideak egokitze laguntza**
 - Ohiko etxebizitzako oztopoak kentzea
 - Ohiko etxebizitza egokitu bat eskuratzeko
 - Ibilgailua egokitzea edo erostea
 - Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak gauatzeko etxeko laguntza
 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrieta-rako sarbidea
- **Beste prestazio batzuk**
 - Heriotzagatiko laguntzaren osagarria
 - Ezintasun handia duten pertsonak zaintzearen inguruko trebakuntza
 - Ohiko etxebizitzaren jabetza mantentzea edo hartaz gozatzen jarraitzea

Kontuan izan beharrekoak

Beste laguntza osagarri batzuk ere eman ahal izango dira, baita laguntza bera ere behin baino gehiagotan, premia egoera berri bat gertatzen bada, betiere egoera hori bete ez bada eta laguntzak jasota badaude.

Prestazio hauek aukerakoak dira, bai haien aintzatespenari eta bai haien muntari dagokienez, eta ezin izango dira izan bide administratiboko edo jurisdikzionalako inongo helegiteren xede.

PBBak estaldura-gastuen zer ehuneko ordainduko duen zehaztu ahal du, kontuan izanda onuradunaren beharrian-egoera edo egoera berezia.

Egoera bereziaren edo beharrian-egoeraren existentziak behar bezala justifikatuta egon beharko du. Bat-batean gertatua izan behar du, eta haren kausa zuzena laneko istripuak edo gaixotasun profesionalak izan behar du.

Xede horietarako egindako gastuak justifikatzen dituzten fakturak eta/edo dokumentuak aurkeztu behar dira.

Munta

Prestazio osagarriaren zenbatekoa PBBak zehazten du, kasuan kasu.

Ordaintzeko era

PBBak prestazioa ematea onesten duenean, banku-transferentzia bidez ordaintzen da. Kasu guztietan, jasotako prestazio osagarriaren helburua justifikatzen duten fakturak aurkeztu behar dira.

Kostua

Laneko istripuengatiko eta gaixotasun profesionalengatiko Gizarte Segurantzako kotizazioaren barnean hartzen da prestazio hau.

Eskabide-prozedura

Asepeyoren laguntza-zentroetan eskura daitekeen eskabide-orria bete behar da, eta bizikidetzako-unitatearen diru-sarrerak egiaztatzen dituen dokumentazio ekonomikoa aurkeztu behar da, bai eta prestazio mota bakoitzerako eskatzen diren gainerako dokumentuak ere.